

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



■ ERRESIDENTZIAK GREBAN

## Greba, eguneko zentroan

Gaurtik abenduaren 31ra arte greba egingo dute zaharren egoitzako eguneko zentroko langileek, ELA sindikatuaren deialdiarekin bat eginez. ■

■ EREMONTEA

## Hiru partidu, gaur

Gabon egunarekin, jaialdi berezia prestatu dute gaurko Galarrretan. Hiru erremonte partidu jokatu dira 16:00etan hasita. Tartean, Barrenetxea IVrena; Utergarekin, Urriza eta Endikaren kontra jokatu du. ■

■ KIROLDEGIA

## Gaur eta bihar itxita, kiroldegia

Eguberriak medio, kiroldegia itxi egingo da gaur eta bihar, eta baita abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean ere. Era berean, datorren larunbatean, hilak 29, igerilekuak itxita egongo dira arratsalde, igeriketa txapelketa jokatu dela eta. ■

## Hamaika aukera, ludotekan

Asteazkenean, ostegunean eta ositranean bi pista irekiko dira kiroldegian ludotekarako, 10:00etatik 13:00etara, eta adin mugarik gabe, jolas librean aritu ahal izango da, edota slackline, eskalada, mahai jolasak, ohe elastikoak... erabili edo prestatutako saioetan parte hartu. ■

■ AEK EUSKALTEGIA

## Mariskada zozketan, gaur

Urtero bezala, mariskada zozketatu du AEK euskaltegiak, gaur iluntzeko manifestazioaren ondoren. Errifak salgai izango dituzte goizez, 11:30etatik 14:00etara Plaza Berrin, eta arratsalde, 18:30etatik aurrera, Plazan. Bildutako dirua AEK laguntzeko izango da. ■

■ DOBERA ELKARTEA

## 'Urte Berri On, amona!' filma, etzi

Zinea Euskaraz! saioekin jarraituko du Doberak hii honetan ere. Ostegunean jarriko du pelikula, 18:30etan Sandiusterrin, borondatearen truke. Zaharzaroa ikuspuntu komiko batetik lantzen duen *Urte Berri On, amona!* ikusi ahal izango da. ■

■ GABON GAUA

# Errondetako kantuen atzetik, Olentzero

Hainbat talde aterako dira Olentzero bizkarrean hartuta etxeko errondan, egun osoan zehar: eskolak, Goiz Eguzki, bertso eskola, Musika Banda... Eta Olentzero, 18:00etan iritsiko da Plazara.

BIZKARREAN hartuta, herriko txoko guztietara eramango dute gaurkoan Olentzero hainbat taldek, etxeko errondetako kantuen lagun.

Ereñotzuko Txirrita eskola-koak izango dira goiztiarrenak, 09:15etan aterako baitira. Segidan, gainontzeko ikastetxeetako ikasleak eta Goiz Eguzki abesbatza aterako dira goizean, eta eguerdiko 15:30etan, bertso eskolako kideak.

## Olentzerorekin egoteko tartea, 20:30ak arte

Olentzero, arratsaldeko 18:00etan iritsiko da, eta oharra ere bidali die hernaniarrei, Ttaria dantza taldearen bitartez. «Gabonetako jaiak ate joka dauzkagu, eta lanez gainezka banabil ere, ez dut zuekin 24an dudan zita ahazten!

Arratsaldeko 18:00tan herriko dantzari eta musikariek Hernaniko kaleetan zehar ibiliko naiz, eta ondoren, 19:00ak aldera udaletxeko arkupeetan zuen gutun eta mu-



Ostiralean Karabelen izan zen Olentzero, eta gaur Plazan izango da.

xu guztiak jasotzeko tartea izango dut. Badakizue Euskal Herriko etxe guztietara heldu beharrean izaten naizela 24 gualdean, eta guztia ondo atera dadin, aurtengo honetan ere ez naiz berandu arte geratuko udaletxeko arkupe-

tan. Jende askok nirekin egon nahi izaten duzue egun berezi honetan, nik ere zuek guztiokin egon nahiko nuke. Beraz, jakin dezazuen, 20:30ak arte egongo naiz bertan zuen esperoan.

Laster arte Hernani eta ondo izan!».

## GABON ERRONDAK

**09:15**, Gabon erronda Olentzerorekin Ereñotzuko Txirrita eskolatik aterata.

**10:15**, Gabon erronda Olentzerorekin Inmakulada ikastetxeak.

**11:00**, Goiz Eguzki abesbatzaren bisita Sandiusterrira, eta segidan kalejira.

**11:00**, Gabon erronda Olentzerorekin Langile ikastolak. Txantilla plazatik atera eta Tilosetan bukatu.

**11:45**, Gabon erronda Olentzerorekin Elizatxo ikastolak; Elizatxo eta Portu auzoetan aurrera, eta Kaxkoan gero.

**15:30**, Gabon erronda baserri baserri bertso eskolak, Biteritik aterata.

**18:00**, Olentzeroren etorrera eta kalejira, Ttaria dantza taldearekin.

**20:00**, Gabon gaueko erronda Hernaniko Musika Bandak, plazatik aterata.

## Musika Banda ere, errondan

Olentzero agurtuta, 20:00etan Musika Banda aterako da, urteroko gabon errondan.

Eta musikak Gabonetan ere etenik ez duenez, Errege Kabalgatan jarri du zita Bandak, hurrena. Goiz Eguzkik ere, urtarrilaren 3an egoitzan kantatuko duela iragarri du, 19:00etan. ■

■ ERRUGBIA

# Bukatu arte gogor borrokatu arren, ezinezkoa

Cisneros aurreratu zen markagailuan atzo, partiduaren hasieran eta bukaeran; etxekoen alde, 43-36. Hamargarren postuan segitzen du horrela Hernanik, baina Cisneros eta La Vilarekin berdinduta.

ETXEAN jokatzeko indarra eman zion atzo Cisnerosi, eta Hernanik erakustaldi bikaina egin bazuen ere, ezin izan zion arerioari aurre hartu; 43-36.

Hasi bezala, 12garren minutuan zigor kolpe bati esker hiru puntu aurreratu zen Cisneros, eta 3 minutura, entsegua

eta transformazioa lortu zituen. 23garren minutuan Hernanik ere lortu zuen entsegua, baina ez zuen transformatu. Atsedendaldien aurretik beste entsegu bat eta transformazioa lortu bazituen ere, madrildarrek bina egin, eta 24 eta 12koarekin bukatu zuten.

Bigarren zatian ere, hasi eta minutu batera entsegua eta transformazioa lortu zituzten etxekoek, 31-12; erantzun egin zuen Hernanik ere, 31-19; berdin berriro ere Cisnerosek, 38-19; eta berdin berriro Hernanik ere, 38-26, eta beste bat segidan, 38-33. Azken bultzada hori ez zen

nahikoa izan ordea; hernaniarren aldeko zigor kolpe bat ere izan zen, baina Cisnerosek beste entsegu batekin azpimarratu zuen nagusitasuna: 43-36.

Sailkapenean 22na punturakin La Vila eta Cisnerosekin berdinduta, urtarrilaren 13ra arte, atsedenerako tartea du. ■

**Presoak KALERA!**  
MANIFESTAZIOA euskal preso politikoa eta iheslariak etxera! Abenduak 24, astelehena 19:30, Gudarian Plaza (Hernani)  
MARTUTENeko espetxera martxa Abenduak 30, igandea 10:30, Zinkoenza (Hernani) 12:00, Martuteneko espetxea

**ATZAN - ETXE TABERNA**  
Larramendi, 15  
943 55 00 46

**Allianz** ASEGURUAK  
bizitza -  
latripiak -  
ibilgailuak -  
ebeak -  
komertzioak -  
enpresak -  
ardura zibila -  
finantz aseguruak -  
inbertsioak -  
**agustin ezponda irizar agentzia**  
Nagusia, 13  
Telf.: 943 55 73 26  
Faxa: 943 33 57 71

**mikel armendariz**  
proiektu eta instalazio elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

**Zorionak bihar Egoi Susperregi Gonzalez!**  
**3 urte**

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOIA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☎ **GAUR:** / Egunez: **TENA** ASTIGARRAGA Nagusia, 16 **943 543718** / **Gauzez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941**  
**BIHAR:** / Egunez: **Aguado** ASTIGARRAGA Nagusia, 21 **943 550327** / **Gauzez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941**

**EGURALDIA** **GAUR** Lainoren bat agertuko bada ere, ez dute ondorioz ekamiko, eta eguzkia izango da orokorrean jaun eta jabe. Hego haizea ahuldu egingo da, eta arratsaldean brisa-ekin freskatu dezake. **Min.8° / Max.15°**  
**BIHAR** Egunsentia hotza izango da, baina eguerdirako epeldu egingo du. Orokorrean, eguzkia izango da berriro jaun eta jabe. **Min.8° / Max.16°** (euskaime)

## BERRIAK ELKARTEA



Marnak jaso du hirugarren saria.



Ibai Mendi eman diote bigarren saria.

## Ikusi Makusi, erakusleho politena

Urtarrilaren 6ra arte ikusi ahal izango dira Gabonetako erakusleho lehiaketan parte hartu duten 31 dendetako dekorazioak.



Ikusi Makusiko erakuslehoak irabazi du lehiaketa.

BERRIAK Ostalari eta Merkatarri Elkartek antolatutako Gabonetako erakusleho lehiaketan 31 dendak hartu dute parte, eta Ikusi Makusik irabazi du; Ibai Mendi eta Marna izan dira bigarren eta hirugarren.

Ostiralean banatu zituzten sariak. Epaimahaia osatu dute Peio Gonzalez, arte plastikoe-tan adituak, Unai Lizarribar, Berriakeko ordezkari eta UTS-ko komunikazio arduradunak eta Ane Loinaz, Alstudiokoak.

Urtarrilaren 6ra arte ikusi ahal izango dira erakusleho guztiak, «herrian dagoen eskaintza zabala» gogorarazteko. ||



Peio Gonzalez, Unai Lizarribar eta Ane Loinazek osatu dute epaimahaia.

## JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

**Orain Hernani! eta euskara** Lotsagarria eta errespetu falta ikaragarria iruditu zitzaizkidan azken Plenoan Orain Hernani!-k adierazitakoa euskararen normalizazioaren aurka. Euskaraldiaren argazkirako lehen ilaran jarri bai, baina "euskararen aldeko" maskara flashak itzali orduko kendu dute. Belarriprest baino argazki- prest dira hauek.

Udalaren Euskararen Normalizaziorako VI. Plana onartzea zen gaia. OH!-k aurka bozkatuko zuela adierazi zuen eta, azalpenean, lotsagarriak, mingarriak eta errespeturik gabeko argudioak entzun behar izan genituen, gaztelera hutsean, noski.

Euskara Planaren kontrako bozka zuritzeko OH!ren aitzar-

ria: Udaltzaingoaren bi bando. Akatsak medio, Kaxkoan euskara hutsean jarritako bi bando. Udalak, bere jardunean, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzen ditu eta komunikazio guztiak elibetan eskuragarri daude. Bi bando euskaraz jartzeagatik Udalak gaztelera hiztun elebarrak diskriminatzen dituela ondorioztatu du OH!-k.

Gaztelania hiztun elebarraren eskubideak, lege "nazio-nalen" babesa dutela gogoraz- razi zigun OH!-k. Lege "espai- niarrek" euskaldunon hiz- kuntza eskubideak ere babes- ten dituztela, baina, zoritxa- rrez, espainiar legeak -gure nazioa ez baita Espainia, OH!- rena izango da akaso- euskal-

dunon eskubideak bermatzeko hutsaren hurrengoa direla oso ondo dakigu.

Ordu erdiko eztabaida su- tsuaren ondoren, ni, nire talde- ko eta beste taldeetako zinego- tzi asko asaldatu ginen azalpe- nak entzun ahal; sentitutako presioagatik edo esandakoak disimulatu nahian, kontra boz- katu beharrean, abstenitu egin zen OH!. Are okerragoa!

Nork ez ditu hernaniarren hizkuntza eskubideak errespet- atzen? Zergatik ezin dut nik, alkateak, nire hizkuntzan jar- dun Hernaniko Udaleko zinego- tzi guztiakin? Nork ez ditu eskubideak errespetatzen?

**Luis Intxauspe Arozamena, Hernaniko alkatea**

## PRESOAK KALERA

# Manifestazioa bat eginda, presoan alde

Sortu, LAB eta Ernaik deituta, plazatik abiatuko da 19:30etan; 'Bada garaia, Presoak Kalera'.

ILUNTZEKO 19:30etan mani- festazioa egingo da Plazatik abiatuta, Sortu, LAB eta Ernaik deituta, *Bada garaia*. Presok kalera lemapean.

«Preso politikoaren egoera larria» dela eta, mobilizatza- deitu dituzte herritarrek, «Es- painian ematen ari den inbo- luzio demokratikoaren kontra- ko antidotorik onena euskal errepublikaren alde borroka- tzea» delako. «Gerra danborrek ozen jotzen dute oraindik Es- painiako estatuaren aldetik,

eta demokrazia gero eta atze- rago dago. Horren lekuko dugu duela bi hilabete jazo zen Karlos Apeztegiaren atxiloketa eta kartzelaratzeta, bere kontra eraiki zen akusazioa. Errepre- sioa, *a por ellos*, 155. artikulua... Hori da 'marca Españatik' datorkiguna», azaldu dute.

Era berean, gogoraz- ti dute ostiralean, hilak 28, giza katea egingo dela Plazan, eta hilaren 30ean Martuteneko kartzelara martxa egingo dela, 10:30etan Zinkoenetaik abiatuta. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**INAXIO INTXAUSPE ARANBURU**  
Zure bizipoza gurekin betirako.  
Gero arte.  
**EIZMENDI TEJEDOR FAMILIA.**  
Hernanin, 2018ko abenduaren 24an

**INAXIO INTXAUSPE ARANBURU**  
Zure oroimena beti izango da gure bihotzean.  
**ZURE LAGUNAK: MARCELO-MARIAJE; ANGEL-MARI CARMEN; KIKO-ADELA; BITTOR-MIRARI; ETA LOURDES.**  
Hernanin, 2018ko abenduaren 24an

III. Urteurrena  
**ROXARITO IRADI ABALABIDE**  
(Jaxe Ansaren alarguna)  
**Maite zaitugun guztiok**  
Hernanin, 2018ko abenduaren 24an

## IRAGARKI MERKEAK

**LOGIKALINE** enpresak **BOST TELEOPERADORA LANPOSTU** bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) edo deitu 943 31 86 06

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)